

PRIBATUTASUN-POLITIKA OROKORRA

Honako pribatutasun-politika honek Farapi Koop. Elkartek eskaintzen dituen zerbitzuetan interesa dutenek eta erabiltzaileek ematen dituzten datu pertsonalen tratamenua arautzen du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 [Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak](#) xedatutakoarekin bat.

Pribatutasun-politika honen helburua da ezagutaraztea zelan bildu, tratatu eta babesten dituen Farapi Koop. Elkartek jasotako eta lan egiten dituen datu pertsonalak. Klausulak pertsona hauei daude zuzenduta:

- Farapi Koop. Elkarteak edozein prozesu eta zerbitzuren inguruko informazioa eskatzen dutenei.
- Farapi Koop. Elkarteak egindako prozesuetan parte hartzen duen edonori, beti ere bere datuak jaso badira
- Paperezko formularioen bidez jasotako datu pertsonalen titularrari (aztertu beharreko informazioa biltzeko alde aurretik emandako saio edo inkestetan emandako formularioak), gure web orrian eskuragarri dauden formularioak (www.farapi.eus) edo kanpoko beste bitarteko batzuen bidez emandako formularioak (adibidez, jotforms aplikazioa bitarte erabilitakoa, informazioa biltzeko).
- Farapi Koop Elkartearekin sinatutako kontratuen titularrari.

Horretaz aparte, Farapi Koop Elkarteak iraganean hainbat bidetatik jaso eta honako Politikara jotzeko dioten datu pertsonalen tratamendua ere arautzen du, beti ere datuak ematean espresuki onartutakoarekin kontraesanean ez badago (orduko bladintzak errespetatu egingo dira, nolahi ere).

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

- ARDURADUNA: Farapi Koop. Elkarteak
- IFZ: F20856092
- Helbidea: Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa, 20012 Donostia-San Sebastián
- Telefonoa: 943 003 585
- Helbide elektronikoa: idezkaritza@farapi.eus

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN XEDEAK

Farapi Koop. Elkartek bere zerbitzu teknikoak aurrera eramateko jasotako datu pertsonalak tratatzen ditu, hainbat motatako partaidetza-prozesuak egiteko, bai eta azterlanak, ikerketak, planak eta diagnostikoak egiteko ere (profil psikologikoak edo sozialak egiteko erabil daitezke). Prozesu edo lan hauek gauzatzeko hirugarren batek kontratatzen gaitu (udalek, aldundiek, erakunde publikoek, enpresa pribatuek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek), baina gerta daiteke ere proiektu independenteen sustatzaile izatea Farapi Koop. Elkarteak bera (diru-laguntza bidez sustatutako prozesu propioak).

Proiektuak gauzatzeko behar ditugun datu hauetaz gain ere, bestelako datu pertsonalak ere tratatzen dira, gure jarduera eta zerbitzuei buruzko komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzeko, baita jasotako curriculumak biltzen dituen gordailu bat sortzeko, lanpostu berrietarako hautagai izan daitezkeenentzat.

Eskainitako zerbitzuei dagokienez, erabiltzaileak dagokion zerbitzua emateko eskatzen zaizkion datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio-politika espezifikoa aurkituko da dokumentu honetan.

DATUEN JATORRIA

Bildutako datu pertsonalak interesdunek eurek emandakoak edo Farapi Koop. Elkarteako informazio sistemetatik zuzenean datozenak dira.

Farapi Koop. Elkarteak iturri hauek erabiltzen ditu datuak biltzeko::

- Web-formularioen bidez ematen zaigun informazioa
- Farapi Koop. Elkarteak dinamizatutako edo kudeatutako prozesuetan parte hartzen duten pertsonen formulario bitartez jasotako informazioa.
- Era berean, gure zerbitzuen kontratatzaileak ematen diguten informazioa, aztertu beharreko informazioa berak duenean (profilak, harremanetarako datuak...).
- Etorrizuneko lanpostuetarako hautagaitza eskaini nahi duten pertsonen beren posta elektronikoa zuzenaren bidez ematen diguten informazioa.
- Bezero edo hornitzaileekin sinatutako kontratuak.

Oro har, tratatzen ditugun datu pertsonalen kategoriak hauek dira:

- Identifikaziorako datuak.
- Harremanetarako datuak.
- Datu akademikoak.
- Datu profesionalak.
- Datu laboralak.

Egiten ditugun prozesuei dagokienez, honako datu pertsonal hauek ere jaso daitezke:

- Esperientziak
- Iritziak
- Elkarrizketa pertsonalak
- Identifikatutako beharrak
- Irudiak
- Audio-grabazioak (elkarrizketak)

INFORMAZIO HAU HONELA TRATATUKO DA:

- Egindako azterlanetan bildutako informazio guztia konfidentziala izango da.
- Egindako elkarrizketen emaitzak edo/eta egindako inkesten emaitzak dokumentu publiko baten zati gisa argitaratu ahal izango dira.
- Ez da inola ere identitaterik agertuko, eta datuak modu anonimoan prozesatuko dira.
- Bideoan edo audioan grabatzen diren elkarrizketak eta horien ondoriozko artxiboak, proiektuaren koordinatzaileak soilik eskura izango ditu, modu kontrolatuan, Farapi Koop. Elkarteen zerbitzuak kontratatu dituen bezeroari eman beharreko azterlanaren edo aktaren parte izango den dokumentua idazteko helburu bakarrarekin.
- Grabazioak, formularioak, inkestak, bildutako elkarrizketak biltzen dituzten artxiboak Farapi Koop. Elkartea-ren zerbitzari pribatua gorteko dira. Farapi Koop. Elkartea-k emandako segurtasun-, babes- eta konfidentzialtasun-bermeekin babestua egongo da momentuoro.
- Farapi Koop. Elkarteko kontratupeko langileak bakarrik sar daitezke zerbitzari horretara. Sartzeko gako pribatua eta besterenezina behar da. Beraz, ez da sarbide publikokoa izango, eta helbide pribatu batean egongo da, eskuragarri ez egonik klabe horiek izan gabe.
- Proiektua amaitu eta bost urte igaro ondoren, bildutako dokumentazioa edo informazioa ezabatuko da, salbu eta interesdunak edo zerbitzuaren kontratatzaileak alde aurretik berariaz eskatzen badu; kasu horretan, eskabideari erantzungo dio.

EMANDAKO DATUEN ZUZENTASUNA ETA EGIAZKOTASUNA

Farapi Koop. Elkartea-ko jarduera eta zerbitzuetako erabiltzaile eta interesdunek bermatzen eta erantzuten dute, nolana ere, emandako datu pertsonalen zuzentasunaz, indarraldiaz eta benetakotasunaz, eta konpromisoa hartzen dute eguneratuta mantentzeko.

DATUAK GORDETZEA

Erabiltzaile eta interesdunek ematen dituzten datu pertsonalak mantendu egingo ditu Farapi Koop. Elkartea-k interesdunarekiko harremana edo lotura mantentzeko bildu ziren helbururako beharrezko diren bitartean, erabiltzaileak tratamendu batzuei kontra egiteko eta/edo ezabatzeko duen eskubidea (baimena kentzea barne, hala eskatzen duten tratamenduetan) kaltetu gabe.

Halakorik gertatuz gero, zure datu pertsonalak blokeo egoerara pasatuko dira, eta egoera horretan helburu hauetarako baino ezin izango dira erabili datu horiek:

- Datuen tratamenduarekin lotuta izan daitezkeen erantzukizunetarako.
- Administrazio publikoen, epaileen, epaitegien eta ministerio fiskalaren eskakizunak artatzeko.

Blokeatzeko epea igarotakoan, zure datu pertsonalak behin betiko ezabatuko dira.

Farapi Koop. Elkartea-rekin egin ditzakezun kontratueteriko baten bidez eman badituzu datu pertsonalak, kontratu harremana amaitu zenetik hasi eta bost (5) urtean mantenduko dira datuak blokeatuta edo, kasua hori izanez gero, datuak tratatzearen kontrako eskubidea edo datuak ezabatzeko eskubidea gauzatzan denetik hasita.

Farapi Koop. Elkartea-ko web orrian eskura dauden inprimakien bidez eman badituzu datuak, oro har, bost (5) urtez gordeko dira kasu bakoitzean datu pertsonalak tratatzeko ezarri daitekeen berariazko epeari kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, Farapi Koop. Elkartea-ri galda dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko legezko epeak bete arte gordeko dira.

LEGITIMAZIOA. DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ZILEGITASUNA GAITZEN DUEN TITULUA

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 6. artikuluan (ohiko datuei buruzkoan) edo 9. artikuluan (datuen kategoria bereziei buruzkoan) ezarrita dagoen bezala egingo da. Datuen titularrari jakinaraziko zaizkio zerbitzu-prestazio bakoitzeko zilegitasun titulua edo tituluak. Hauek izan daitezko tituluak:

- Interesduna parte den kontratu bat edo erlazio juridiko bat exekutatzea.
- Legezko betebeharrak betetzea.
- Deustuko Unibertsitatearen legezko interesa.
- Interesdunak espresuki emandako baimena.

DATUAK LAGATZEA

Datu pertsonalen tratamendua, Farapi Koop. Elkartea-k ez du daturik lagako, legezko betebeharrak betetzeko edo interesdunak baimenduta ez bada. Halakoetan, interesdunari baimena eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio hori ez egiteak zer ondorio dakarkion eta, zehazki, ezin izango zaiola dena delako zerbitzua eman.

Farapi Koop. Elkartea-ko zerbitzuak emateak eska dezake zerbitzu informatikoei edo Unibertsitatearen tratamenduaren arduradun gisa zerbitzuen beste hornitzaile batzuei komunikazioak bidali behar izatea. Hornitzaile horiek datuak tratatzeko konfidentziasun eta segurtasun baldintzak bete beharko dituzte, eta Europar Batasunetik kanpo kokatuta egon daitezke, Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko “Privacy Shield” edo “Pribatutasun Ezkutu” izeneko akordioaren babespean. Akordio horren inguruko informazioa hemen ikus daiteke: <https://www.privacyshield.gov>

ESKUBIDEAK

Interesdunak eskubide hauek ditu:

- **INFORMAZIOAREKIKO SARBIDE EDO ESKURAGARRITASUNA IZATEKO ESKUBIDEA:** Interesatuei eskura dituzten datu pertsonalen kopia emango zaie, honako datu hauekin batera: zein helburutarako bildu diren, datuen hartzaileen nortasuna, aurreikusitako kontserbazio-epeak edo hori zehazteko erabilitako irizpidea, datu pertsonalen zuzenketa edo ezabaketa eskatzeko eskubidea dagoen, datuen tratamendua mugatu edo horren aurka dagoen, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko eskubidea eta interesdunak datuak eskuratu ez baditu, jatorriari buruzko edozein informazio eskuragarri. Datuen kopia lortzeko eskubideak ezin die eragin negatiborik izan beste interesdun batzuen eskubide eta askatasunei.
- **DATUAK ZUZENTZEKO ESKUBIDEA:** Datuak zuzentzeko eskubidean interesdunen datuak aldatuko dira, baldin eta datuak okerrak edo osatugabeak badira, tratamenduaren helburuak kontuan hartuta. Interesdunak eskabidean adierazi beharko du zer daturi buruz ari den eta zer zuzenketa egin behar den, eta, beharrezkoa denean, tratatu beharreko datuen zehaztasun eza edo izaera osatugabea justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Arduradunak datuak beste arduradun batzuei jakinarazi badizkie, horien zuzenketa jakinarazi beharko die, ezinezkoa denean edo neurritz kanpoko ahalegina eskatzen duenean izan ezik. Hala eskatzen badu, hartzaileei buruzko informazioa emango dio interesdunari.
- **DATUAK EZABATZEKO ESKUBIDEA:** Datuak ezabatzeko eskubidean, pertsona interesdunen datuak ezabatuko dira, tratamenduari uko egiten diotela adierazten dutenean eta hori eragozten duen legezko oinarririk ez dagoenean, datuak biltzeko erabili ziren helburuei dagokienez beharrezkoak ez direnean, emandako baimena kentzen dutenean eta tratamendua legitimatzen duen edo legez kontrakoa den beste lege-oinarririk ez dagoenean. Interesdunak bere datuak marketin-helburuekin tratatzearen aurka egiteko duen eskubidea erabiltzearen ondorio bada ezabaketa, interesdunaren identifikazio-datuak gorde daitezke, etorkizunean tratamendurik egin ez dadin. Arduradunak datuak beste arduradun batzuei jakinarazi badizkie, horiek ezabatu direla jakinarazi beharko die, ezinezkoa denean edo neurritz kanpoko ahalegina eskatzen duenean izan ezik. Hala eskatzen badu, hartzaileei buruzko informazioa eman beharko dio interesdunari.
- **AURKA EGITEKO ESKUBIDEA:** Aurka egiteko eskubidean, interesdunek beren datu pertsonalen tratamenduari uko egiten diotenean arduradunaren aurrean, arduradunak datu horiek prozesatzeari utziko dio, baldin eta hori eragozten duen legezko betebeharririk ez badago. Tratamendua interes publikoko misio batean edo erantzulearen interes legitimoan oinarritzen denean, aurka egiteko eskubidea egikaritzeko eskaera baten aurrean, arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta egiaztatzen bada interesdunen interes, eskubide eta askatasunen gainetik dauden edo erreklamazioak formulatzeko, gauzatzeko edo defendatzeko beharrezkoak diren premiazko arrazoiak daudela. Interesduna zuzeneko marketinerako tratamenduaren aurka badago, datu pertsonalak ez dira xede horietarako tratatuko.

- **DATUAK ERAMATEKO EDO ESKUZ ALDATZEKO ESKUBIDEA:** Eramangarritasun-eskubidean, tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada eta baimenean oinarritzen bada edo kontratu baten esparruan egiten bada, interesdunek eska dezakete beren datu pertsonalen kopia formatu egituratu batean jasotzea, erabilera komunekoa eta irakurketa mekanikoa duena. Era berean, eskubidea dute zuzenean arduradun berri bati helaraz diezazkioten eskatzeko. Arduradun berri horren nortasuna teknikoki posible denean jakinarazi beharko da.

- **TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEA:** Tratamendua mugatzeko eskubidean, interesdunek beren datuen tratamendua eteteko eska dezakete, datuen zehaztasuna aurkaratzeko, erantzuleak beharrezko egiaztapenak egiten dituen bitartean edo tratamendua arduradunaren interes legitimoan oinarrituta edo interes publikoko misio bat betez egiten bada, arrazoi horiek interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean. Interesdunak datuak gordetzea ere eska dezake, baldin eta tratamendua legez kontrakoa dela uste badu eta, tratamendua ezabatu beharrenean, tratamendua mugatzeko eskatzen badu, edo erantzuleak datuak jaso ziren helburuetarako behar ez baditu ere, interesdunak erreklamazioak egiteko, gauzatzeko edo defendatzeko behar baditu. Interesdunaren datuen tratamendua mugatuta egotea argi eta garbi jaso beharko da arduradunaren sistemetan. Arduradunak datuak beste arduradun batzuei jakinarazi badizkie, horien tratamendua mugatuta dagoela jakinarazi beharko die, ezinezkoa denean edo neurritz kanpoko ahalegina eskatzen duenean izan ezik. Hala eskatzen badu, hartzailerei buruzko informazioa eman beharko dio interesdunari.